

**ALBIZTURKO UDALA**

Hirigin-tza baimenak arau-tzen duen Ordenan-tza-ren aldaketaren behin betiko onarpena.

Albizturko Udalba-tza-rrak, 2015eko -otsailaren 15ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespena ematea Hirigin-tza baimenak arau-tzen duen Ordenan-tza-ren aldaketari, jendeaurreko epea pasa ondoren behin betiko izaerarekin onartua geratuko litza-tekeelarik. Epe honetan ez da inolak erreklamaziorik izan.

Toki-araubidearen Oinarriak arau-tzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitara-tzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekur-tsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitara-tzen den egunetik konta-tzen hasita; egoki iri-tzi-tako beste edozein errekur-tso jar-tze-ari -utzi gabe.

Aplika-tze-koa den legeria: azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arau-tzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa.

Albiztur, 2016ko apirilaren 4a.—Carlos Ugartemendia Leunda, lehendakaria. (2414)

ERANSKINA

HIRIGIN-TZA ARLOKO BAIMENAK ARAU-TZEKO ORDENAN-TZA

I. TITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

1. artikulua. Helburua.

Udalba-tza-ren helburua da dagokion administrazioa eralda-tzeko prozesuan aurrera egitea, eta **Albizturko** herritar guztiek ulertu eta eskuratu ahal izango duten moduko administrazio arin, eraginkor eta efizientea lor-tzea.

Horretarako, ordea, administrazio-prozesuak erraztu eta argitu egin behar dira, izapide burokratikoak ezabatu eta burutu beharreko prozesuak laburtu egin behar dira, erabakiak arin emanez baina, aldi berean, jarduerak buru-tze-rakoan antolamendu juridikoa beteko dela bermatuz; hau da, denei tratamendu berdina emanez, prozesua bu-tzatu duten arrazoiekin eta helburuekin bat etorri eta norbanakoen askatasuna errespetatu.

Lizen-tziak ematea da, hain zuzen, udal administrazioak herritarren jardueran izaten duen esku-har-tze ezaugarrietako bat; izan ere, lizen-tzia ematea, preben-tziozko kontrol bat egitea da, administratuak aurrez duen eskubidea bat onar-tzen duen egin-tza bat, eta lizen-tziaren bitartez, Legeak ezarritako mugak berriro finka-tzen dira. Lizen-tzia emateak, azken batean, jarduera jakin bat gauza-tzeko ezarria dagoen debekua desegitea du helburu.

Hirigin-tzako legeriak, -zehazki lurzoruari eta hirigin-tzari buruzko 2/2006 Legearen 207. artikulua, eta Hirigin-tzako Diziplina Erregelamenduko 1. artikulua (LGTB eta HDE, 1)-antolamenduko planek edo ordenan-tzek adierazitako beste hainbat egin-tzez gain, udal lizen-tzia behar duten egin-tzak jaso-tzen dituzte.

Hirigin-tza arloko lizen-tzia bat emateko prozedura orokorra 210. artikuluan zehaztua dago. Eta, artikulua horren lehen pasartean adierazitakoaren arabera, hirigin-tzako lizen-tzia emateko prozeduraren hasiera, instrukzioa eta ebazpena, betiere, kasuan kasuko udal ordenan-tzek arautuko dute; eta, udal ordenan-tza horiek, gutxienez, lege horretan jasotako arauak errespetatu beharko dituzte.

Bestetik, 2/2006 Legeak 75. artikuluan ezarritakoaren arabera, eraiki-tzeko eta hiritar-tzeko ordenan-tzak onartu egin behar dituzte udal gutziek, toki-araubidearen legeriaren arabera.

Udal honen iri-tziz, egokia da obrak egiteko lizen-tzien eskaera, tramitazioa eta kontrola erregula-tzea, eta horretarako, obren kategoriak bitan bana-tzea -obra handiak eta obra txikiak-; eta hortaz, berriaz hirigin-tzako lizen-tziak arau-tzera bideratua dagoen ordenan-tza hau onar-tzea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Ordenan-tza hau **Albizturko** udal barruti osoan aplikatuko da.

II. TITULUA

HIRIGIN-TZAKO LIZEN-TZIA MOTAK ETA DOKUMENTAZIOA

3. artikulua. Obra handia egiteko lizen-tzia: Kon-tzep-tua.

1. Obra handi-tzat hartuko dira eta, beraz, bidezko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da honako obra hauek gauza-tzeko:

a) Oin berriko instalazioak eraiki-tzeko, egiteko eta ezar-tzeko obrak.

b) Lehendik zutik dauden eraikinak handi-tzeko, alda-tzeko, eraberri-tzeko edo birgai-tzeko obrak, baldin eta jatorrizko eraketa arkitektonikoa aldatuko badute. Halako-tzat hartuko dira esku-har-tze osoa eska-tzen duten eta eraikinaren barruko zein kanpoko

osaketa orokorra, bolumetria edo egitura-sistema osoa nabarmen aldatuko duten obrak, edota beren helburua, eraikinaren erabilera nagusia aldatzea dutenak.

c) Eraikin batean, egitura-sistema orokorra edota eraikuntzaren oinarrizko eskakizunek ukitutako elementuak edo zatiak nabarmen aldatuko dituzten obrak.

d) Katalogatutako eraikinetan edota legezko arau edo hirigintzako agiri baten bitartez erregulatutako nolabaiteko babes mota –ingurumeneko, edo historiko-artistikoa– duten eraikinetan esku-hartze orokorra dakarten obrak; baita eraikinaren zati batean gauzatuko diren obrak ere, baldin eta babespeko elementuak edo zatiak ukituko badituzte.

e) Lehendik zutik dauden eraikinetan burutuko diren eta eraikin horien zurezko egitura-sistema aldatuko duten obrak.

f) Eraikinak edo instalazioak eraisteko obrak.

4. artikulua. Obra handia egiteko lizentzia: Dokumentazioa.

1. Obra handia egiteko lizentzia eskuratu ahal izateko, oro har, interesdunak izenpetutako eskabidea aurkeztu beharko da, Udalak emandako eredu arautuari jarraituz egina. Eskabide horrekin, nahitaez, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1) Oinarrizko proiektua, paperezko bi aletan, eta euskarri digitaleko ale batean. Proiektu hori teknikari eskudunak idatzia izango da, eta gutxienez honakoak jasoko ditu:

a) Obrak deskribatzen eta arrazoiatzen dituen memoria, inguruneari egokitzen zaiola berariaz adieraziz.

b) Hala dagokionean, eta indarrean dagoen hirigintza planeamenduan, ordenantza hauetan edota dagokion legeria sektorialean xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioaren beste erakunde batzuek igorri beharreko txostenak eta baimenak, betiere horiek eskatzea lizentzia eskaizaleari dagokionean.

c) Aurrekontua, kapituluz kapitulu banakatu eta zehaztua. Aurrekontu horretan sartuko dira, halaber, dagokion etekin industrial, proiektuan parte hartuko duten teknikarien eta obra-zuzendarien ordainsariak, halakorik izanez gero behintzat, eta aplikatu beharreko BEZa.

Proposatutako helburuen edukia eta irismena kontuan hartuz, Udalak, behar bezala arrazoiturik, beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu gehigarriak aurkeztea exijitu ahal izango du, edo exijitutako dokumenturen baten aurkezpena beharrezkotzat ez jo, dokumentuen edukia egokituz, edota duten munta eskasari begira neurritz kanpoko dokumentazioa eskatzen zaien eraikuntza lanak obra txikitzat jo.

Behin lizentzia eman eta gero, obrei ekin aurretik, interesdunak Gauzatze Proiektua idatzia eta dagokion Elkargoak ikus-onesia baduela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du Udal erregistroan. Eta proiektu horrek bat etorri beharko du Oinarrizko Proiektuan, Segurtasun eta Osasun Proiektuan, Hondakinen Proiektuan eta obrak gauzatze beharrezkoak diren eta legez nahitaez bete beharrekoak diren gainerako proiektu osagarrietan ezarritako xedapenekin. Erregistroan aurkezten den agiri horrek, proiektua idatzitzi duen

teknikariaren sinadura eta kasuan kasuko Elkargo Ofizialaren oniritzia beharko ditu.

Nolanahi ere, legez exiji daitezkeen ondorioei begira, lizentzia eskaizeko oinarrietat erabilizten den dokumentazio teknikoa egin duenak erantzungo du dokumentazio horretan jasotako datu teknikoen zehaztasunaz eta egiazkotasunaz.

Lizentzia emateko proiektu teknikoa eskaitzen den kasu guztietan, lizentziaren titularrak obra zuzendari bat izendatu beharko du, obren ezaugarriekin bat datorren titulazio teknikoa duena, eta, hala dagokionean, eginkizun horietan lagunduko dion erdi mailako teknikari bat (aparejadorea, arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa). Obraren zuzendari hori izango da obran zehar gerta litekeen guztiaren erantzule.

Aurreko ataletan aipaturikoaz gain, eta, hala dagokionean, egin nahi den obraren, jardueraren edo instalazioaren arabera ezar daitezkeen legezko beste xedapen batzuek xedatutakoaz gain, lizentzia eskaerek barne hartu beharko dute jarraian zehazten den dokumentazioa:

a) Lur zatiketak:

— Jabezia Erregistroaren ziurtagiria, ukitutako finkaren edo finken jabari baldintzak egiaztaizten dituen.

— Ukitutako finkaren egungo egoera nahiz proposatutako lur zatiketa argi islatuko dituen dokumentazio grafikoa.

b) Garabiak jarritzea:

— Teknikari eskudun batek egindako proiektua.

— Industria Sailaren baimena garabia jarritzeko.

— Aseguru poliza, garabiaren funtzionamenduak eta hura obran egoteak sor ditzaketan kalteei buruzko erantzukizun zibil mugagabea estalitzen duena.

c) Ingurumena Babesteko 3/1998 Legeari eta Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskuetsuen Erregela-menduari lotutako jarduerak ezarritzea (sailkatutako jardueren irekitze lizentziak):

— Memoriak xehetasunez deskribatuko ditu ukitutako eraikinaren edo lokalaren ezaugarriak eta garatu nahi den jardueraren ezaugarriak, horien barruan sarturik maniatu eta fabrikatu beharreko produktuak, erabili beharreko makineria, eta ingurunean izan dezakeen eragina (zarata, bibrazioak, usaina, isuriak, kea eta abar), ezarri beharreko neurriak, eta abar.

— Kasu bakoitzean indarrean dauden legezko xedapenetan eskaitzen diren dokumentuak eta baldintzak.

d) Lurzoru hiritarrezineko lizentziak:

— Finkaren edo finken Jabezia Erregistroko inskripzio datuak, baldin eta gutxieneko azalera jakin bateko lurzatiaren ekarpena eskaitzen bada.

e) Eraikinen edo instalazioen lehen erabilera.

— Obra lizenziaren edo lizenziaren kopia.

— Obraren amaierako ziurtagiria, obrako zuzendariak sinatua eta bidezko Elkargo Ofizialak onetsia, obra horiek emandako lizenziaren arabera gauzatu direla egiaztatuz.

— Benetan burututako obraren planoak, paperean eta euskarri digitalean. Era berean, lurzatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, udal kartografiaren gainean 1/200 edo 1/500 eskalan egina. Plano horrek, halaber, egindako eraikuntza eta hiritar-tze lanak adierazi beharko ditu, ondorioztatu diren sestra-kota berriak erakutsiz.

— Eraikuntzen edo instalazioen kanpoaldearen argazkiak.

— Behin betiko likidazioa, obren edo instalazioen benetako kostua adierazten duena, obraren zuzendariak sinatua.

— Behin betiko kalifikazioaren zedula, baldin eta babes publikoko etxebizitzak badira.

— Obra berriaren deklarazioaren eta jabetza horizontala eratu izanaren eskrituraren kopia baimendua, obraren lizenzian ezarritako baldintzetara egokitzeko delak agertuz.

— Horrez gain, eta betiere horretarako aurrez beste inolako biderik ezarri ez bada, edo lizenzian berriaz horrela ezarri bada, eskritura horretan bertan, edo osagarria den beste batean, Udalari nahitaez laga beharreko lursailen eskualdaketa egikaritu da, eta baita jarritako lursailen eraikin edo instalazioarekiko lotespena ere, laga ez diren garatutako eraikuntza eskubideak justifikatzeko. Lur horien jabetza ezin da inola ere eraikuntza-erren jabetza-tik banandu.

— Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan izena emanda egotearen aitorpena, hala dagokionean.

— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena emanda egotearen aitorpena, hala dagokionean.

Eskatutako lizenziak modalitate bat baino gehiagotan saritzeko baldintzak bete-tzen baditu, modalitate horietako bakoitzeko eska-tzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Lizenziaren babespeko obrak bukatu ondoren, eta Lehen erabilera baimena arauz eskuratu beharrekoa ez bada behintzat, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

— Obraren amaierako ziurtagiria, obrako zuzendariak sinatua eta bidezko Elkargo Ofizialak onetsia, obra horiek –eta egindako aldaketak, halakorik izanez gero–, emandako lizenziaren arabera gauzatu direla egiaztatuz.

— Behin betiko likidazioa, obren edo instalazioen benetako kostua adierazten duena, obraren zuzendariak sinatua.

5. artikulua. Obra txikiak: Kontzeptua.

1. Obra txikitzat hartzen dira teknika soilekoak eta eraikuntza zein ekonomiari begira munta txikiak diren obrak, erabilera komuneko instalazio eta zerbitzuen bolumena eta

erabilera, edota etxe bizi tzen eta lokalen kopurua alda tzen ez badute; eta, betiere, era guztietako eraikin edo instalazioen kanpoko diseinuari, egituraren zimenduei, edota segurtasun baldin tzei eragiten ez badiete. Erabilera alda tzea dakarten obrak ez dira obra txiki tzat hartuko.

Obra txi kiek ez dute ondorioztatuko, inondik ere, eraikitako bolumen edo azalera aldaketarik, ez eta berregitura tze rik ere; eraikinaren elementu arkitektonikoak edo komunak ez dira nabarmen aldatuko, eta eraikinaren jatorrizko lizen tzian baimendutako etxe bizi tzen eta lokalen kopurua ez da aldatuko. Era berean, obra txi kiek ez dute eraikinaren egituraren edo diseinuan eragingo, ez eta eraikinaren edo instalazioaren bizigarritasun eta segurtasun baldin tzak murriztuko ere.

Obra txi kiek baimenen erregimen orokorrari lotuak egongo dira, gutxienik aurrekontu bat aurkeztu beharko delarik.

III. TITULUA

ERREGIMEN JURIDIKOA

6. artikulua. Lizen tzien tramitazioa.

1. Lizen tziak izapide tzean, artikulua honetako hurrengo epigrafeetan ezarriko denaz gain, eta halakorik denean, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoaz aparte, toki erregimeneko eta hirigin tzako gaietan indarrean dagoen legeriak ezarritakoa bete beharko da.

2. Indarrean dauden legezko xedapenetan eta proiektu honetan bertan xedatutakoarekin bat etorritik, nekazari tzako eta abelazkun tzako ustiategi arruntetan eragiten duten lizen tzien eskarrietan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazari tza eta Arran tza Departamentuak eman beharreko ziurtagiriak, baimenak edo txos tenak lortu beharko dira nahitaez; edo bestela, departamentu horren zereginak bete tzen dituen erakundeak emandakoak.

3. Ezarri nahi den erabilera edo jarduera planeamenduan berariaz debekaturik dauden erabileren artean dagoenean, dagokion erabilera orokorreko zonan edo lurzatian, edo zuzenean horien pareko tztat jo badaiteke, zuzenean ukatuko dira horretarako eska tzen diren jarduera edo ireki tze lizen tziak, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisku tsuen erregelamenduan ezarritako izapideak abiatu ere egin gabe.

4. Bestela, ipini nahi den jarduera bat ezar tzeko, obrak egin behar badira, espediente bakar bat izapidetuko da eta, ematen zaion ebazpena, ireki tzeko lizen tziarako eta obrak egiteko lizen tziarako izango da.

5. Alkateari dagokio lizen tziak emateko eskumena.

7. artikulua. Lizen tzien titularitatea eta honen eskualdaketa.

1. Berez edo beste per tsona batek ordezkaturik lizen tzia eskatu duen hura hartuko da lizen tziaaren titular tzat.

2. Lizenziaren titularrak haren aurreikuspenak gauzatu ahal izango ditu, Udalaren kontrolpean, eta titular horrena izango da jarduera ezarritako baldintzetan gauzetaren eta indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako tasak eta zergak ordaintzeko ardura.

3. Eskatzaileak ordezkari moduan edo mandatuz badihardu, egiaztatu egin beharko du hori. Beste kasuetan, lizenziaren titularizat hartuko da, ondorio guztietarako, ordezkatuarekin edo mandatariarekin batera.

4. Lizenzien titularitatea indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako baldintzetan eskualdatu ahal izango da.

Eskualdatzeko orduan, obrak gauza bidean badaude, obra horien egoera zehaztu egin beharko da.

Edonola ere, titular berriak bere gain hartu beharko ditu aurrekoak hartutako konpromiso eta betebeharrak guztiak, eta, beharrezkoa izanez gero eta horri dagokionez, aurrez egindako dokumentu publikoak aldatuko dira.

Dena den, jabari publikoko ondasunetan eragiten duten obra edo jardueretarako lizenzien titularitatea eskualdatzeko, aldeztatik Udalaren berariazko baimena lortu beharko da nahitaez, edo hala badagokio, ondasun horien titularrak den erakundearena.

8. artikulua. Lizenzia aldatzea.

1. Proiektuan funtsezko aldaketak egiten badira, eta horien ondorioz, obra handia egiteko lizenzia eskuratzeko oinarri zat erabili ziren baldintzak aldatzen badira, kasuan kasuko lizenzia osagarria eskatu beharko da. Aldaketa horiek ez badira funtsezkoak, aldeztatik Udala jakinaren gainean jarri beharko da, baimena eman dezan.

2. Obra txiki bat gauzatzen den bitartean aldaketak egin nahi badira, eta horien ondorioz, ardurapeko adierazpenean ezarritako baldintzak aldatuko badira, Udala jakinaren gainean jarri beharko da, baimena eman dezan.

3. Nolanahi ere, Udalak kasuan kasuko baimena eman arte ezin izango da obrarekin jarraitu.

9. artikulua. Hirigintzako lizenzien indarraldia eta luzapena.

1. Hirigintzako lizenziek indarrean iraungo dute kasuan kasuko jarduera lizenzia horien babespean gauzatzen den bitartean, eta betiere, lizenzian jasotako eskakizunekin bat.

2. Hirigintzako lizenziak, obra hasteko eta bukatzeko epe jakin batzuekin emango dira beti, hurrengo atalean zehaztuko denari jarraituz:

— Lizenzia emateko egin zetan bertan finkatuko dira obrei ekiteko epeak, obrek gehienez izan dezaketen etenaldia eta obrak amaitzeko epea.

— Edonolako arrazoiak direla tarteko, aipatutako epeak lizenzian zehaztu ez badira, ulertuko da obrak hasteko eta amaitzeko epeak lizenziaren eskatzaileak proposatutakoak izango direla, edo eskatzailearen proposamenik izan ezean, sei (6) hilabeteko epea, obrari ekiteko

eta hemezortzi (18) hilabetekoa, obra amaitzeko.

— Aipatutako epea dagokion udal erabakia eskaizaleari jakinarazten zaion unetik aurrera kontatuko da. Jarduerarako lizentzia emateko baldintza gisa ezarritako neurri zuzentzaileei dagozkien obrak badira, obrei 3 hilabeteko epean ekin beharko zaie, eta 6 hilabeteko epean bukatu.

— Plangintzan edo lizentzia emateko erabakian horri buruzko berriazko aipamenik egin ezean, obrak ezingo dira, ezein kasutan, sei (6) hilabetez baino gehiagoz eten edo gelditu.

3. Udalak lizentzian iraupena behin bakarrik luzatu ahal izango du, hasieran erabakitako epea gaintutuko ez duen epe berri bat emanda, baldin eta lizentzia bat badator emandako unean indarrean zegoen hirigintzako antolamenduarekin.

4. Kasu guztietan, luzapen horren tasak ordaindu egin beharko dira.

10. artikulua. Hirigintzako lizentzian iraungipena.

1. Obrarako lizentziak, segidan aipatuko diren kasuetan iraungiko dira, Udalak horri buruzko berriazko adierazpena egin ondoren:

a) Obrei ez ekitea, lizentzia emateko erabakian ezarritzen den epean edo, bestela, emakida jakinarazten den unetik kontatzen hasita sei (6) hilabeteko epean.

b) Obrek sei (6) hilabete baino gehiagoko epea izan eta, epearen erdia igaro ondoren, egindako obrek proiektu osoaren aurrekontuaren %20 ez gaintutzea.

c) Baimendutako obra ez amaitzea, lizentzia emateko erabakian ezarritzen den epean edo, bestela, emakida jakinarazten den unetik kontatzen hasita hemezortzi (18) hilabeteko epean.

d) Baimendutako obrak hasi eta sei (6) hilabetez baino gehiagoz etenda egoteagatik.

Baimendutako obrak geldituzat joko dira, noizbehinkako lanak edo dagoeneko egindakoen osagarri direnak –alegia lizentzia iraungi baino lehen jarduera amaitzeko adinako intentsitatez egiten ez direnak– burutu arren.

e) Lizentzian ezarritako baldintzaoren bat garbi eta nabarmen ez beteaz gatik.

f) Neurri zuzentzaileak betetzera eta gauzatzera baldintzatutako jarduerak lizentziak, 2 hilabeteko epean iraungiko dira, baldin eta neurri zuzentzaile horiek betetzen edo gauzaten ez badira.

2. Oro har, industriako edo hirugarren sektoreko erabilerak edo jarduerak ezarritzeko lizentziak iraungi egingo dira horiek eten eta dagokion lokala bederatzita (9) hilabetez baino gehiagoz itxirik badago; eta, edozein kasutan ere, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja hartuz gero.

3. Lizen^{tzia} bat irau^{ngi}tzat jotzen bada, beste lizen^{tzia} bat eskatu beharko da lanak amaitzeko edo jarduerari berriz ekiteko. Udalak, kasuan kasuko gorabehera guztiak aztertu ondoren, lizen^{tzia} berriari dagozkion tasak eta eskubideak murrizteko edo ezabat^{zeko} eskubidea izango du.

11. artikulua. Obraren zuzendari^{tza} alda^{tzea}.

Edozein arrazoi dela-eta, obren zuzendari teknikoren batek bere kargua utziko duela aurreikusten bada, alderdietako edozeinek (obraren sustatzaileak edo ukitutako teknikariak) gorabehera hori Udalarari jakinarazi beharko dio hamabost eguneko aurretiaz. Eta obrei ezin izango zaie berriro ekin, harik eta zuzendari berri batek kargua hartu duela jakinarazten den arte.

12. artikulua. Zergen, tasen eta eskubideen ordainketa.

1. Kasu eta modalitate bakoitzeko lizen^{tziaren} zergen eta tasen zenbatekoa, dagozkion ordenan^{tza} fiskaletan ezarritakoa izango da.

2. Lizen^{tzia} emateko egin^{tzan} zehaztutako eskubideen ordainketak konturakoak izango dira. Hori horrela, lizen^{tziaren} titularrak, obra amaitzean, behin betiko kostua aitortu behar du derrigorrez, kasuan-kasuan bidezko den likidazio osagarria egin ahal izateko.

3. Udal zerbitzuek, egindako aitorten horien egiazkotasuna ziurta dezakete, obran parte hartu duten pertsonen kostua zehazteko aurrekariak, ziurtagiriak eta bestelako dokumentu guztiak eskatuta.

4. Obrek Udalaren jabari publikoko ondasunen aprobe^{txa} mendu bereziak inplikatzen badituzte, hegalkinak ere horien barruan hartuta, dagozkion zerga ordenan^{tze}tatik ateratzen diren eskubideak eta tasak ordaindu beharko ditu eskatzaileak, ordenan^{tza} horietan finkatutako epe eta moduan, edota lizen^{tzia} ematen duen erabakiak zehazten duenari jarraituz.

5. Edonolako obra bati ezin izango zaio ekin, aldez aurretik lizen^{tzia} emateko egin^{tzan} finkatutako zergak, tasak eta eskubideak ordaindu ez badira.

IV. TITULUA

OBRAK IKUSKATZEA ETA ZIGOR ERREGIMENA

13. artikulua. Obrak ikuskatzea.

Ordenan^{tza} honetan araututako hirigin^{tza} jarduerak Udala Administrazioaren ikuskatuko ditu, honako Ordenan^{tza} honetan eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudietan egindako aurreikuspenekin bat datoze la bermatzeko.

14. artikulua. Legea babesteko neurriak.

1. Ordenan^{tza} honetan araututako hirigin^{tza} jarduerak Udalaren bidezko lizen^{tziarik} gabe, edo lizen^{tziaren} edukiari jarraitu gabe, edota ardurapeko adierazpena aurkeztu gabe

egin badira, aplikatu beharreko hirigin-tza legerian aurreikusitako neurriak erabakiko ditu Udalak, urratutako arauak berreskura-tzeko neurriak, hain zuzen.

2. Behin hirigin-tza legeria babesteko espedientea abiatuta, ebazpenaren eraginkortasuna bermatuzko beharrezko-tzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu erakunde eskumendunak. Kautelazko neurrien artean, besteak beste, erabil-tzeko prest dauden elementuak, materialak edo makinak kentzea erabaki daiteke eta, halakoetan, obra geldi-tzeko agindua jakinarazten denetik hasita 5 eguneko epean kendu beharko dira. Neurri hori bete ezean, interesdunaren kontura kenduko dira. Era berean, obrak etetea, sarbideak ixtea, eta antzekoak erabaki ahal izango dira kautelazko neurri gisa.

15. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak.

1. Ordenan-tza honetan aurreikusitako arau-haustek, dagozkien zigorrak eta arau-hausteen eran-tzuzkizuna dagokien subjektuak zehazteko, hirigin-tza legeriak, toki erregimeneko araudiak eta oro har aplikatu beharreko gainerako arauak xedatutakora joko da.

2. Arau-haustek ez dio etekin ekonomikorik ekarriko, inolaz ere, arau-hausleari. Urratutako antolamendua berreskura-tzeak ez badu inolako jarduera materialik eska-tzen, arau-hausleari ezar-tzen zaion zigorra ez da legez kanpoko jarduerarekin lortutako etekina baino gutxiago izango.

Azken xedapena.

Honako Ordenan-tza hau, bere eduki osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara-tzen denean jarriko da indarrean, betiere Toki Erregimeneko Oinarriak arau-tzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 65.2 artikuluan aurreikusitako epea bete ondoren.